



1614/2018 EBAZPENA, MARTXOAREN 6KOA, OSAKIDETZA/EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO BILBAO-BASURTO ESIKO ZUZENDARI GERENTEARENA. HONEN BIDEZ, EPEA ZABALTZEN DA ZERBITZU-ERAKUNDE HONETAKO PERTSONAL-ZUZENDARITZARAKO HAINBAT ZERRENDA EGITEKO (BILBAO-BASURTO ESIKO PROFESIOALEN ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENETAKO, ZERBITZU-EGINKIZUNETAKO ETA ZERBITZU-ERAKUNDEEN ARTEKO ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENETAKO) POSTU HAUEI DAGOKIENEZ: BERARIAZKO EZAGUTZAK DITUZTEN GOI-MAILAKO TEKNIKARI JURIDIKOA, ANTOLAKETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA ETA ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO TEKNIKARIA.

Kontuan harturik, batetik, abenduaren 18ko 255/2007 Dekretuaren 79. artikuluan zehaztutakoa (horren bidez, onartu egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko profesionalen lan-baldintzak Arautzeko Akordioa); bestetik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Akordioan ezarritakoa (horren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako postuak zerbitzu-eginkizun eta aldi baterako barne-sustapen bidez hornitzeko irizpideak; eta, hirugarrenik, Bilbao Basurto ESIko zuzendari gerentearen maiatzaren 12ko 1191/2017 Ebazpenaren bidez onartutako Aldi baterako Barne Sustapen Ireki eta Iraunkorreko protokoloak xedatutakoa, Ebazpen hau ematen da epea zabaltzeko Zerbitzu Erakunde honetako Pertsonal Zuzendaritzarako hainbat zerrenda egiteko (Bilbao Basurto ESIko profesionalen aldi baterako barne-sustapeneko, zerbitzu-eginkizunetako eta zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapeneko) postu hauei dagokienez: berariazko ezagutzak dituzten goi-mailako teknikari juridikoa, antolaketako goi-mailako teknikaria eta administrazio eta kudeaketako teknikaria.

RESOLUCION Nº 1614/2018, DE 6 DE MARZO, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA O.S.I. BILBAO-BASURTO DE OSAKIDETZA/SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE PROCEDE A LA APERTURA DE PLAZO PARA LA ELABORACIÓN DE LISTAS DE PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL DE PERSONAL DE LA OSI BILBAO-BASURTO/COMISIÓN DE SERVICIOS/PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL ENTRE ORGANIZACIONES DE SERVICIOS, DE PUESTOS DE TÉCNICO SUPERIOR JURÍDICO, TÉCNICO SUPERIOR DE ORGANIZACIÓN Y TÉCNICO DE ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN, CON CONOCIMIENTOS ESPECÍFICOS, PARA LA DIRECCIÓN DE PERSONAL DE ESTA ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS.

De conformidad con lo establecido en el artículo 79 del Decreto 255/2007, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud y en el Acuerdo de 9 de mayo de 2011 del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se aprueban los criterios para la provisión de puestos mediante comisión de servicios y mediante promoción interna temporal en las organizaciones de servicios del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y teniendo en cuenta lo establecido en el protocolo de Promoción Interna Temporal Abierta y Permanente de la OSI Bilbao-Basurto aprobado mediante Resolución 1191/2017, de 12 de mayo, de la Directora Gerente de la OSI Bilbao-Basurto, se procede a dictar la presente Resolución para la apertura de plazo para la elaboración de listas de promoción interna temporal de personal de la OSI Bilbao-Basurto/comisión de servicios/promoción interna temporal entre organizaciones de servicios, de puestos de técnico superior jurídico, técnico superior de organización y técnico de administración y gestión, con conocimientos específicos, para la Dirección de Personal de esta Organización de Servicios.



1. BETEKIZUNAK: Eskabideak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta agiriz egiaztatu, ez badira azaltzen baliozkotu gisa CV aplikazio informatiko korporatiboan.

Bilbao Basurto ESiko edo Zerbitzu Erakundeen arteko **Aldi baterako Barne Sustapena eskatzen dutenentzat:**

- Karrerako funtzionarioa, langile estatutarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea, Bilbao Basurto ESleri/Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia.
- Zerbitzu aktiboan izatea, eta lortu nahi den kategoria ez den beste batekoa izatea, nahi den kategoria horri dagokion titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa.
- Eskuratu nahi den kategorian, izendapenik ez izatea karrerako funtzionario edo pertsonal estatutario finko eran, edo lan-kontratu finkorik ez edukitzea, izendapen edo kontratu horrekiko egoera administratiboa edozein dela ere.
- Bilbao Basurto ESleri pertsonal finko gisa atxikita egotea, Erakunde honetako aldi baterako barne-sustapenerako; edo beste zerbitzu-erakunde bati pertsonal finko gisa atxikita egotea, erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapenerako.
- Eskatutako titulazioa edukitzea, uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritakoarekin bat, eta deitutako azken EPEan eskuratu nahi den kategoria eta lanpostu funtzionalerako eskatutako gainerako titulazio-baldintzak beteta.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.
- Hizkuntza- eskakizuna: 3. hizkuntza-eskakizuna (derrigortasun-data iraungita daukaten lanpostuetan)

1. REQUISITOS: Deben cumplirse el último día del plazo de presentación de solicitudes y deberán acreditarse documentalmente, salvo que consten como validados en la aplicación informática corporativa de CV.

Para los/as solicitantes de Promoción interna Temporal de la OSI Bilbao-Basurto o entre Organizaciones de Servicios:

- Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a la OSI Bilbao-Basurto/ Organizaciones de Servicios de Osakidetza.
- Estar en servicio activo y pertenecer a otra categoría de igual o inferior nivel de titulación que aquélla a la que se opta.
- No tener nombramiento como funcionario/a de carrera o personal estatutario fijo o contrato laboral indefinido, de la categoría a la que se opta, cualquiera que sea la situación administrativa en la que se encuentren en relación con dicho nombramiento o contrato.
- Estar adscrito/a como personal fijo a la OSI Bilbao-Basurto para la promoción interna temporal en esta Organización o a una Organización de Servicios distinta para la promoción interna temporal entre organizaciones.
- Estar en posesión de la titulación establecida en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, y resto de requisitos de titulación exigidos en la última OPE convocada en la categoría y puesto funcional al que se opte.
- Si está en situación de promoción interna temporal en puesto de la misma categoría, llevar más de un año de forma ininterrumpida en dicha situación.
- Perfil lingüístico: 3 (para los puestos con fecha de preceptividad vencida).

- Deialdi honetan zehaztutako ezagutza espezifikoak egiaztatzea.

- Acreditar los conocimientos específicos establecidos en esta convocatoria.

Zerbitzu-eginkizuna eskatzen dutenentzat:

- Dagokion kategorialanpostu funtzionalean karrerako funtzionario, langile estatutario edo lan-kontratadun finkoa izatea, Osakidetzako zerbitzu-erakundeei atxikia; edo karrerako funtzionario edo langile estatutario finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko gainontzeko zerbitzu sanitarioetan.
- Zerbitzu aktiboan izan behar da, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez da egin behar norberak plaza jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundean.
- Hizkuntza- eskakizuna: 3. hizkuntza- eskakizuna (derrigortasun-data iraungita daukaten lanpostuetan)
- Deialdi honetan zehaztutako ezagutza espezifikoak egiaztatzea.

Para los/as solicitantes de comisión de servicios:

- Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de Servicios de Osakidetza o funcionario/a de carrera o estatutario fijo del resto de los servicios de salud del Sistema Nacional de Salud en la categoría/puesto funcional de que se trate.
- Estar en servicio activo y efectuar la solicitud para la cobertura de puestos en Organización de Servicios distinta de aquella en la que se tenga plaza en propiedad o a la que se esté adscrito por reingreso provisional al servicio activo.
- Perfil lingüístico: 3 (para los puestos con fecha de preceptividad vencida).
- Acreditar los conocimientos específicos establecidos en esta convocatoria.

2. ESKATUTAKO PROFILA ETA BERARIAZKO EZAGUTZAK:

Baloratu egingo dira postu bakoitzerako zehaztutako eta behar bezala egiaztatu beharreko ezagutza espezifiko hauek:

Goi-mailako Teknikari Juridiko posturako:

- Esperientzia Pertsonaleko arlo juridikoan.
- Prestakuntza eta esperientzia SAPeko Gizabide-Giza baliabideak moduluan.
- Datuen babesaren gaineko ezagutza.
- Ezagutza eta esperientzia pertsonalaren diziplina-araudiaren arloan.
- Pertsonala hautatu/hornitzeko organoetan parte hartu izana.

2. PERFIL REQUERIDO Y CONOCIMIENTOS ESPECÍFICOS:

Se valorarán los siguientes conocimientos específicos debidamente acreditados respecto de cada uno de los puestos:

Para el puesto de Técnico Superior Jurídico:

- Experiencia en el área jurídica de Personal.
- Formación y experiencia en SAP módulo Gizabide-Recursos Humanos.
- Conocimientos en materia de protección de datos.
- Conocimientos y experiencia régimen disciplinario del personal.
- Participación en órganos de selección/provisión de personal.



- Ofimatika-ezagutzak (Windows, Microsoft office: Excel, Word, Outlook).

- Conocimientos de Ofimática (Windows, Microsoft office: Excel, Word, Outlook).

Administrazio eta Kudeaketako Teknikari eta Antolaketako Goi-mailako Teknikari postuetarako:

Para el puesto de Técnico de Administración y Gestión y Técnico Superior de Organización:

- Prestakuntza eta esperientzia **SAPeko** Gizabide-Giza baliabideak moduluan.
- Prestakuntza eta esperientzia pertsonak kudeatzearen arloan.
- Osakidetzako **hautaketa eta horniketa** sistemak ezagutzea: araudia, prozedurak eta sartzeko baldintzak. Pertsonala erakundean sartzea.
- Ezagutza izatea plantillako estaldurak kudeatzearen arloan.
- Ezagutza/esperientzia **lan-teknika berriak** Pertsonalaren arloan ezartzeari dagokionez / Esperientzia **GGBBen kudeaketa-sistema korporatiboak** ezartzen.
- Ofimatika-ezagutza aurreratuak (Windows, Microsoft office: Excel, Word, Outlook).
- Ezagutza/esperientzia edukitzea kalitatea kudeatzeko sistemetan eta auditorietan Pertsonalaren arloan: Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Eredua, ISO araua, eta prozesukako kudeaketa (kalitate-ereduak).

- Formación y experiencia en **SAP** módulo Gizabide-Recursos Humanos.
- Formación y experiencia en gestión de personas.
- Conocimientos de los sistemas de **selección y provisión** de Osakidetza: normativa, procedimientos y requisitos de acceso. Incorporación de personal.
- Conocimientos de gestión de coberturas de plantilla.
- Conocimiento/experiencia de/en implantación de **nuevas técnicas de trabajo** en el área de Personal/ Experiencia en la implantación de los **sistemas de gestión corporativos de RRHH**.
- Conocimientos avanzados de Ofimática (Windows, Microsoft office: Excel, Word, Outlook).
- Conocimiento/experiencia de/en sistemas de gestión de calidad y auditorías en el área de Personal: Modelo de Gestión Avanzada de Euskalit, norma ISO, y gestión por procesos (modelos de calidad).

3. BAREMAZIOA:

3. BAREMACIÓN:

Aldi baterako Barne Sustapenari dagokionez:

En caso de Promoción Interna Temporal:

- Osakidetzako Enplegu Publikoaren Eskaintzako oposizio-fasea (100 puntu gehienez): kontuan hartuko da izangaiek lortutako puntuazioa Osakidetzak dagokion kategorian deitutako azken EPEko oposizio-fasean.
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu): eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte aitortutako zerbitzu-denbora zenbatuko da, betiere Osakidetzak deitutako azken EPEaren barruan dagokion kategoriako deialdian barne-sustapeneko

- Fase de oposición de la Oferta Pública de Empleo de Osakidetza (máximo 100 puntos): se tendrá en cuenta la puntuación obtenida por los/as aspirantes en la fase de oposición de la última OPE de la categoría de que se trate convocada por Osakidetza.
- Experiencia profesional (máximo 80 puntos): se computará el tiempo de servicios reconocido hasta la fecha de apertura del plazo de presentación de solicitudes, en los términos establecidos para el cómputo de la experiencia



txandarako lan-esperientzia zenbatzeko ezarritako moduan.

- Euskera: Euskera-ezagutza baloratzeko, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Euskara Planean ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat, Osakidetzako azken EPEan dagokion kategoriarako xedatutako balorazioa emanda.

Zerbitzu-eginkizunei dagokienez:

- Egindako zerbitzuak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak deitutako azken lekualdatze-lehiaketako deialdien oinarrietan jabetzako lanpostuari dagokion kategorian izandako lanbide-esperientzia zenbatzeko ezarritakoari jarraituta.
- Euskera: Euskera-ezagutza baloratzeko, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Euskara Planean ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat, Osakidetzako azken lekualdatze-lehiaketan dagokion kategoriarako xedatutako balorazioa emanda.

4. ESKAERAK AURKEZTEA ETA EPEA:

- Interesa dutenek eskaera behar bezala bete, eta Bilbao Basurto ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute (Montevideo etorbidea 18, 48013 Bilbo), Ebazpen hau argitaratu eta 20 egun balioduneko epean.
- Eskabidearekin batera, agiriz egiaztatu beharko dira Ebazpen honetan postu bakoitzaren gainean zehaztutako betekizunak eta ezagutza espezifikoak, baita lanpostua betetzeko interesgarritzat jo eta balioa eransten dioten meritua ere.

profesional para el turno de promoción interna en la convocatoria de la respectiva categoría en la última OPE convocada por Osakidetza.

- Euskera: se valorará conforme a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, y en el Plan de Euskera de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con la valoración contemplada en la convocatoria de OPE de Osakidetza para la categoría de que se trate.

En caso de Comisión de Servicios:

- Servicios prestados en los términos establecidos para el cómputo de la experiencia profesional en la categoría en la que se ostenta el puesto en propiedad en las bases del último concurso de traslados convocado por Osakidetza.
- Euskera: se valorará conforme a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, y en el Plan de Euskera de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con la valoración contemplada en la convocatoria del último concurso de traslados convocado por Osakidetza para la categoría de que se trate.

4. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES Y PLAZO:

- Las personas interesadas deberán dirigir su solicitud debidamente cumplimentada a la Dirección de Personal de la OSI Bilbao-Basurto (Avenida Montevideo, nº 18, 48013 Bilbao) en el plazo de 20 días hábiles desde la publicación de la presente Resolución.
- Dicha solicitud deberá acompañarse de la documentación acreditativa de los requisitos y conocimientos específicos señalados en la presente Resolución respecto de cada uno de los puestos, y de aquellos méritos que se consideren de



CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden betekizunak, ezagutza espezifikokoak eta meritukoak ez dira ziurtatu behar izango; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

5. LEHENTASUN-HURRENKERA:

Postuak betetzeko lehentasun-hurrenkera hau izango da, betiere profila egiaztatuz gero:

- 1.- Erakunde barneko Aldi baterako Barne Sustapena.
- 2.- Zerbitzu-eginkizunak.
- 3.- Zerbitzu Erakundeen arteko Aldi Baterako Barne Sustapena.

6. BALORAZIO BATZORDEA:

Eskaerak barematzeko, Batzorde bat osatuko da. Batzordeburu zuzendari gerentea izango da, eta kide hauek izango ditu: Pertsonaleko zuzendaria, Pertsonaleko zuzendariordea, eta idazkari arituko den Pertsonaleko Zuzendaritzako ordezkari bat.

7. HAUTAKETA PROZEDURA:

Batzordeak baloratu egingo ditu interesdunek garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskabideak; eta, egokitzat jotzen dituen kasuetan, aurrez aurreko elkarrizketa egitea erabaki dezake.

Baremazio horren arabera, dagokion zerrenda egingo da: postuan sortuko diren estaldura-beharrak betetzeko erabiliko den zerrenda, hain zuzen ere.

interés y añadan valor al desempeño del puesto de trabajo.

La acreditación no será necesaria respecto de aquellos requisitos, conocimientos específicos y méritos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, circunstancia que deberá hacerse constar en la solicitud.

5. ORDEN DE PRIORIDAD:

El orden de prioridad para la cobertura de los puestos, siempre que se acredite el perfil requerido, será el siguiente:

- 1.- Promoción Interna Temporal en la Organización.
- 2.- Comisión de Servicios.
- 3.- Promoción Interna Temporal entre Organizaciones de Servicios.

6. COMISIÓN DE VALORACIÓN:

Para la baremación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión presidida por el Director Gerente e integrada por la Directora de Personal, la Subdirectora de Personal y un/a representante de la Dirección de Personal que actuará como Secretario/a.

7. PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN:

La Comisión valorará las solicitudes presentadas en tiempo y forma por los/as interesados/as, pudiéndose acordar una entrevista personal con aquellos/as candidatos/as que se considere oportuno.

En virtud de dicha baremación se procederá a la elaboración de la correspondiente lista que servirá para gestionar las coberturas de puesto que diera lugar.



Batzordeak bete gabe utzi ahalko du deialdia, baldin eta izangaiek deialdian eskatutako betekizunak edo ezagutza espezifikoak betetzen ez badituzte.

8. ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPEN/ZERBITZU-EGINKIZUNEN IRAUPENA

Aldi baterako barne-sustapena / zerbitzu-eginkizuna edozein unetan ezeztatu ahalko da, aurretik Bilbao Basurto ESIko zuzendari gerenteak ebazpen zioduna emanaz.

9. EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ezartzen da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.

La Comisión podrá declarar desierta la convocatoria en el caso de que los/as aspirantes no reúnan los requisitos o conocimientos específicos exigidos en esta convocatoria.

8. DURACIÓN DE LA PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL/ COMISIÓN DE SERVICIOS

La promoción interna temporal/ comisión de servicios podrá ser revocada en cualquier momento previa resolución motivada del Director Gerente de la OSI Bilbao-Basurto.

9. RECURSOS CONTRA LA PRESENTE RESOLUCIÓN:

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación, a tenor de lo preceptuado en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Bilbo, 2018ko martxoaren 6a/Bilbao, 6 de marzo de 2018

Iz.: Eduardo Maiz Olazabalaga

**BILBAO-BASURTO ESIKO ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTOR GERENTE OSI BILBAO-BASURTO**



Osakidetza

BILBAO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTOR GERENTE
Izpt/Fdo.: Eduardo Maiz Olazabalaga